

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua martxan jarri eta ondo funtziona dezan, funtsezko baliabide batzuk behar ditugu. Baliabide hauei esker, aplikazioa sortu, erabiltzaileengana iritsi, haiekin harremana mantendu eta, azkenik, diru-sarrerak lortu ahal izango ditugu.

Baliabide hauek lau multzotan banatzen dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

BALIABIDE FISIKOAK

Aplikazioa sortu eta garatzeko, ordenagailuak eta mugikorak behar ditugu, hauek direlako lanerako tresna nagusiak. Horrez gain, interneteko konexio egonkorra ezinbestekoa da, aplikazioak ondo funtzionatzeko eta erabiltzaileek elkarrekin komunikatzeko.

Aplikazioa martxan edukitzeko, zerbitzariak edo hodeiko plataformak erabiliko dira. Bestalde, lanerako espazio egoki bat beharko da (etxea, ikasgela edo beste toki bat), taldeak elkarrekin lan egin ahal izateko.

BALIABIDE INTELEKTUALAK

Proiektuaren oinarria aplikazioaren ideia bera da, baita haren diseinua eta funtzionamendua ere. Horrez gain, aplikazioaren izena, marka eta irudia landu beharko dira, erabiltzaileek erraz identifikatu eta konfiantza izan dezaten.

Bestetik, informatikako eta aplikazioen garapeneko ezagutzak behar dira, eta baita hezkuntzari buruzko oinarritzko ezagutzak ere, ikasleen beharrak hobeto ulertzeko. Azkenik, arauak eta antolaketa definitu beharko dira: ordainketak, balorazio-sistemak eta erabiltzaileen arteko harremanak.

GIZA BALIABIDEAK

Proiektua aurrera eramateko, pertsonak dira baliabiderik garrantzitsuena. Taldean aplikazioa diseinatu eta garatuko duten pertsonak egongo dira, baita kudeaketa eta antolaketa lanak egingo dituztenak ere. Publizitatea eta erabiltzaileak erakartzeko ardura duten pertsonak ere beharrezkoak izango dira. Gainera, aplikazioan parte hartzen duten ikasleek beraiek ere baliabide garrantzitsua dira, laguntza emanaz eta jasoz. Etorkizunean, moderazioa eta balorazioak zainduko dituzten pertsonak ere beharko dira komunitatea ondo funtzionatzeko.

FINANTZA BALIABIDEAK

Hasieran, aurrezkiak erabiliko dira aplikazioa sortu eta martxan jartzeko. Geroago, dirua beharko da aplikazioa mantentzeko eta hobetzeko, adibidez, zerbitzariak, publikitatea eta bestelako gastuak ordaintzeko.

Denborarekin, aplikazioak diru-sarrerak sortzea espero da, batez ere klase partikular bakoitzeko komisio txikien bidez eta harpidetzen bidez.

DIRU SARRERAK ETA KOSTUAK

Gure aplikazioak diru-sarrerak lortuko ditu batez ere klase bakoitzeko komisio baten bidez, ikasleek egiten dituzten ordainketetatik portzentaje txiki bat jasoz. Horrez gain, harpidetza-aukerak eskainiko dira, eta etorkizunean publizitatea edo zerbitzu bereziak ere gehitu ahal izango dira.

Bestalde, kostu nagusiak aplikazioa garatzea eta mantentzea, zerbitzariak ordaintzea, publizitatea eta erabiltzaileei arreta ematea izango dira. Diru-sarrerak eta gastuak ondo orekatuz, proiektua ekonomikoki bideragarria eta iraunkorra izango da.